

2015-11-13 OSTIRALA
38. ZENBAKIA
URTEAN 50 EURO
WWW.ALEA.EUS

ETIKETAZ HARAGO

Arabako ardoentzat, estrategia berrien bila

Arabako campuseko errektoreordea

J. Garaizar: "Egoera latzean dago ikerkuntza"

Gernikako arbolatik, kolonia

Lurrin berria sortu du arabar batek



ALEA

arabako aldizkaria

MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA



EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

eroski.es

lurraldearen
%100   -era
iristen gara

HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu, harpidetu zaitez. 50 euroren truke, 44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus



Alea

38. zk.

Azalean:

J.C. Lopez de Lacalle.



8



14



16



24

- 4 Bertako ardoentzat, bertako ereduena bila.
8 J. Garaizar: "Ikertzeko diru-sailak murriztu dituzte".
12 Iritzia: Haizea Galarraga, Jon Gil, Itsasiega.

ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: 'Gasteiz irekia' ekimena aurkeztu dute.
16 Aiara: Gernikako Arborearen esentzia, botilan.
17 Gorbeialdea: 'Azoka kultur anitza', Izarran.
19 Añana: Sobrongo bainuetxea, sugarrek kiskalita.
20 Lautada: euskara ikasteko laguntzetan, murrizketak.
21 Mendialdea: Entziako mendatea, babestuago.
22 Trebiñu: 'Zergatik ez?', euskararen erabilera areagotzeko.
23 Arabako Errioxa: Inaziotar bidean barrena.

HAMAIAK SALTSA

- 24 Josebe Iturriotz transfeministarekin Solasalean.
25 Punkaren oihartzuna, Artiumen.
26 Lan mundua euskalduntzeko, ahalegin berriak.
27 Zozketak.
28 Postontzia.
29 Denbora-pasak.
30 Agenda.



Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa

Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala

Erlantz Anda

Denbora pasak

Bagabiga

Inprenta

Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa

Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA

Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.
Eskola kalea, 10. 13. bulegoa,
01001. Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa

erredakzioa@alea.eus

Harpidetza

harpidetza@alea.eus

Publizitatea

publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Aste honetako kolaboratzaileak: Haizea Galarraga, Jon Gil, Iker Etxaniz, Aitor Alvarez eta Bai Euskarari ziurtagiriaren elkarteak.

ALEA ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Ardoaren 'jatorria', airean

Asko dira Arabako Errioxako saldei balore erantsia eman nahi diotenak, identitatea eta bereiztea oinarri hartuta. Familia negozio txikiak dira gehienak. Asmo horrek, baina, aldaketak ekarriko lituzke jatorrizko deituran. Edo, agian, ez. **MIRIAN BITERI** GUARDIA

Azken hilabeteotan pil-pilean dagoen eztabaida da Arabako Errioxako ardoek Errioxa Jatorrizko Deituran jarraitzearena edo ez. Eta horren bueltan, *Jatorrizko deitura, Identitatea eta Bereiztea* izeneko kongresua egin zuten pasa den larunbatean, Guardian.

Gaia sakon aztertu zuten mahastietan goizetik iluntzera arte lan egiten dutenek, adituek eta baita ordezkari politikoez; esaterako, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak hartu zuen parte Arabako Mahastien Adiskideak elkarteak antolatutako biltzarrean. Eztabaida luze joan zen eta amaitu aurretik, hainbat ondorio ere atera zituzten Samanigo jauregian batu zirenek; guztien artean, garrantzitsuenak: Arabako Errioxako saldek jatorrizko deitura berezkoa behar dute, eskualdetik bertatik kudeatuko dena.

Arabako Mahastien Adiskideak (AMA) elkartearen presidentea Juan Carlos Lopez de Lacalle ere aipatutako kongresuan izan zen. Bera ere

bat dator ondorio horrekin. Ez dago ados Errioxako Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileak jarraitzen duen "negozio modeloarekin". Horren harira, honakoa azpimarratu nahi izan du: "Gu ez goaz inoren kontra; gure alde baino ez dugu egiten. Errioxako Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileak bere enpresa estrategia du, eta guk onartu egiten dugu. Baina, guk beste eredu bat nahi dugu".

"Negozio txikien" alde

Eta nolakoa da Arabako Errioxan nahi duten eredu hori? Argi dauka Guardiako Artadi upeltegiko ugazabak. Haren ustez, *Errioxako* Kontseilu Arautzaileak "globalizazio proiektua" du helburu, eta Arabako Errioxan, berriz, asko dira familia negozio txikien alde daudenak. "Hain justu ere, betiko uzta-biltzailearen alde. Ezin dugu lurraldearen, paisaiaren edo kalitatearen boterea galdu. Ilusioz eta autoestimuz egin behar dugu lan, errentagarritasuna alde batera utziz. Merkatuak

"Ilusioz eta autoestimuz egin behar dugu lan, errentagarritasuna alde batera utziz"

"Daukagunari balore erantsia eman behar diogu; identitatean eta bereiztean bilatu behar dugu hori"

JUAN CARLOS LOPEZ DE LACALLE
AMAKO PRESIDENTEA

azken horretara eramaten bagaitu ere, guk mahatsondo-enborrak errotu behar ditugu; hurrengo belau-naldiei ilusio hori helarazi behar diegu, joan ez daitezen. Eta hori lortzeko ezinbestekoa da Arabako Errioxak berezko jatorrizko deitura izatea". AMAko presidenteren arabera, Errioxa eta Arabako Errioxa "guztiz ezberdinak" dira; "ez dute zerikusirik". Lehenengoak bere



**Pasa den irailean,
langileak mahatsa
jasotzen.**

ALEA

eredua "produktibitate eta errentagarritasuna" oinarri dituen bitartean, Arabako Errioxako upeltegi asko "identitatearen eta bereiztearen" alde daudela azpimarratu du Guardiakoak.

13.000 hektarea inguru

Horrekin batera, gogorarazi du eskualdeak orografia "konplikaturia eta zaila" duela, eta errentagarritasuna lortze aldera, ez dutela tokirik mahasti gehiago jartzeko, *Errioxako* Kontseilu Arautzaileak nahi duen bezala. Horren harira, honakoa azpimarratu du: "Arabako Errioxak 13.000 mahasti hektarea inguru ditu; denera, 65.000 bat ditu. Eta Errioxak beste 100.000 jartzeko ahalmena du. Guk, ordea, ez. Hortaz, daukagunari balore erantsia eman behar diogu; identitatean eta bereiztean bilatu behar dugu hori. Eta horretarako, ezinbestekoa da autogestioa".

Arabako Errioxako upeltegien iritzi orokorraz galdetuta, AMAko presidentek azaldu du berezko jatorrizko deituraren aldeko asko

daudela; upeltegi txikiak dira horiek. Gaineratu du "beste negozio moduloaren" aldekoak ere badaudela, eta horiek ere "errespetatu" behar direla. Eta, hain justu, enoturismoari buruz, egunotan, Logroñon egin duten topaketa batean, Arabako

Ganberako presidente Gregorio Rojok aipatu du "oso gustura eta konprometituak" daudela Errioxako Jatorrizko Deituran, eta harremanak "hobetzen" saiatzen ari direla.

Hemendik aurrerako pausuez ere hitz egin du Lopez de Lacallek.



Ardoaren jatorria beti presente egon behar da Lopez de Lacallerentzat. | MIRIAN BITERI

Eztabaida luzea

2012ko ekainean

Eztabaida berpiztu zen ABRAk Villabuenan egin zuen sari banaketan. Eskualdeko "pertsonek" txalotu ostean, bertako upeltegien errentagarritasuna bilatzeaz gain, "eskualde osoko" errentagarritasuna ere bilatzen dela ere aipatu zuen Ines Baigorri.

2013an

Eusko Jaurilaritzak Errioxako Jatorrizko Deiturako Kontseiluan zituen ordezkariak osoko bilkura utzi zuten, "gutxietsi" egiten zitzutela.

2014ko abenduaren 28an

Guardiako Artadi upeltegiko Juan Carlos Lopez de Lacallek Errioxaren negozio ereduak kritikatu zuen, eta aurtengo abenduaren 31n *Errioxa* utziko zuela iragarri zuen.

2015eko apirilaren 10ean

Arabako Mahastien Adiskideak elkartearen aurkezpena.

2015eko apirilaren 14an

EAJ-k Arabako Errioxarako jatorrizko deitura eratzea proposatu zuen.

2015eko apirilaren 30ean

EH Bildu ere berezko jatorrizko deituraren alde agertu zen.

2015eko ekainaren 4an

Arabako Errioxako ardoak bereiztearen alde azaldu zen ABRA.

2015eko irailaren hasieran

Mahats-bilketaren festako Ardo Lehiaketarako, *Errioxako* kontseiluak emandako diru-laguntzak bertan behera utzi izana salatu zuen Arabako Errioxako kuadrillako orduko presidente Jokin Villanuevak.

2015eko irailaren hasieran

PSeren ustez, Arabako Errioxako saldek bere identitatea bereizteko aukera izan beharko lukete, baina Errioxatik atera gabe.

2015eko irailaren hasieran

PPren arabera, orain arte "ondo" funtzionatu du ardo arabarrek *Errioxa* barruan egon izana.

2015eko irailaren 20an

Mahats-bilketaren festan, Arabako diputatu nagusi Ramiro Gonzalezek iragarri zuen ez dutela baztertzeko Errioxako jatorrizko deituratik irteeta.

2015eko azaroaren 7an

Jatorrizko deitura. Identitatea eta Bereiztea izeneko kongresua.



Arabako Errioxa jartzearen aldekoak badira.

ALEA

"Eskualde osoko familia askoren interesei eta bizimoduari eragiten die eztabaidak"

"Beldur gara ez ote gauden desagertzeko zorian beste eredurik ezin badugu jarraitu"

INES BAIGORRI ABRA-KO GERENTEA

Iragarri du lehenik AMA elkar-
tea indartuko dutela; pasa den api-
rilean egin zuten horren aurkezpe-
na. Horrekin lotuta, urtea amaitu
aurretik, batzarra egingo dute zuzen-
daritza batzorde zabalagoa lortzeko.
Jarraian, "aldaketaren alde" lan
egiten jarraituko dute. "Badakigu
zer den nahi duguna, baina bidea
bilatu behar dugu. Argi daukaguna
da aldaketa oinarritik etorri behar
dela. Prozesu luzea da orain mar-
txan jarri duguna". Berak, bere
aldetik, aldaketaren aldeko "bere
harri-koskorra" jarriko du; joan den
urtean iragarri zuen bere upeltegiek

Errioxako Jatorrizko Deituraren
barnean egoteari utziko diotela aben-
duaren 31ean. Asmo horri tinko
eusten diola jakinarazi du asteon.

Inkesta martxan

Artadikoa ez da eztabaida horren
barruan sartuta dagoen bakarra.
Arabako Errioxako Upeltegiko Elkar-
tean (ABRA) ere mugimendua dago.
Egunotan horren barruan dauden
149 enpresa artean galdetzen dabil
ea Errioxako Jatorrizko Deituraren
barruan jarraitu nahi duten ala ez.
Modu horretan, sektoreak nahi due-
na eta dituen beharrak ezagutu nahi
dituzte, izan ere, pil-pilean dagoen
eztabaidak "eskualde osoko familia
askoren interesei eragiten die". Ines
Baigorri gerentearen esanetan, ikus-
puntu ekonomikotik harago doa,
belaunaldiz belaunaldi oinordetzan
hartutako "bizimoduari" eragiten
dio eta.

Eusko Legebiltzarrean izan zen
pasa den asteen Baigorri. Han eman
zuen ekimen horren berri, eta hona-
koa nabarmendu zuen: "Enpresa eta
ardo mota guztiak bereizi behar dira
eta Errioxa den kapela azpian balo-
rea eranstea". Bestelakorik ere esan
zuen: "Elkarteak 25 urte daramatza
lan egiten, eta urte guzti horietan,

gaur egun horren babespean dauden negozio modelo guztiak ondo tratatuak izan daitezen, ondo islatua izan daitezen eta kontsumitzailearengana modu egokian heldu daitezten".

Gaiari buruz gutxitan hitz egingen du Baigorri; zuhurra da eta nahiago du eztabaida etxe barrura utzi. Pasa den larunbateko biltzarra aurkezteko urria amaieran egindako agerraldian, baina, auziaz egin zuen berba. Honakoa azpimarratu zuen orduan: "Arabako Errioxarekin erantzukizuna dugu, eta beldur gara ez ote gauden desagertzeko zorian beste negozio eredurik ezin badugu jarraitu. Kontua ez da gehiago saltzea, baizik eta hobeto saltzen saiatzea".

'Arabako Errioxa', botilen etiketan

Lehenago ere gaiaz mintzatu izan da elkarteak. Ekainaren 4an argitaratutako ohar batean ohartarazi zuen ez zuela baztertzen Errioxako Jatorrizko Deitura uztea, Arabako

"Administrazioei ez dagokigu erabakiak hartzea; eragile inplikatuak dira mugitu behar direnak"

RAMIRO GONZALEZ DIPUTATU NAGUSIA

"Administrazioa zain dago. Kontua da badakigula nora joan nahi dugun, baina ez zein bide hartu"

J.C. LOPEZ DE LACALLE AMAKO PRESIDENTE

Errioxako eta bertako negozioen etorkizuna ez bazen bermatzen. Errioxako Kontseilu Arautzaileak ABRA-k egindako eskaerari ezetza eman ostean heldu zen esandako oharra. Arabako ardoen jatorria bereizte aldera, botilen etiketan Arabako Errioxa jarri ahal izatea proposatu zuen eskaera horretan.

Aspalditik datorren ika-mika da jatorrizko deiturarena. Desadostasunak beti egon dira, baina, azken hilabeteotan asko izan dira *Errioxa* Kontseilu Arautzaileak jarraitzen duen bidearen kontra agertu direnak; tartean, euskal ordezkari politikoak. Arabako diputatu nagusi Ramiro Gonzalez, esaterako, Arabako Errioxako ardoak bereiztearen alde azaldu da behin baino gehiagotan. Dena dela, gogorarazi du administrazioari ez dagokiola erabakiak hartzea; "eragile inplikatuak dira mugitu behar direnak".

Administrazioaren papera

AMako presidentea bat dator azken horrekin. Horren harira, honakoa esan du: "Legeria zerbait tekniko da. Erabakiak hartu behar dira aurretik eta hori Arabako Errioxan bertan egin behar da; administrazioak zain ditugu. Kontua da badakigula nora joan nahi dugun, baina ez dakigu zein bide hartu". Denborak esango du auzia zertan geratzen den.



FAMILIA HARRERA

Arabako ume askok harrera familia bat behar dute, aldi baterako zaindu eta etorkizun hobea eskainiko dietena.

945 773 052

www.alava.net/ifbs



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Familia bat
behar dugu.
**Hartuko
gaituzu
zurean?**



JAVIER GARAIZAR

ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEA Micaela Portilla ikergune berria izango du campusak udaberrian; ikerketa proiektuak abian jartzeko aurrekontua, aldiz, "eskasa" dela dio Javier Garaizar errektoreordeak. **A. AMENABAR** GASTEIZ

"Ikasleekin dugun 'muga' gainditzen saiatzen ari naiz"

Hurrengo hilabeteetan, udaberri bitartean, Arabako EHUko campuseko Micaela Portilla eraikina antolatzea izango du zeregin nagusietako bat Javier Garaizar (Algorta, Bizkaia, 1960) errektoreordeak. Gizarte eta giza zientzien arloko ikerketa zientifikoan ari direnei zerbitzua eskaini nahi diete ikergunearekin.

Udaberrirako prest izango da Micaela Portilla eraikin berria?

Dena prest dago eta bakarrik falta zaigu erabakitzea, deialdi baten bitartez, nortzuk joango diren bertara. Historia, arkeologia eta bestelako gaietarako ikergunea izango da, eta dagoeneko 15 bat talde daude bertara joateko moduan. Hiru solairuko espazio berria izango da, campus guztiarentzako aberasgarria.

Campusean hainbat gaietarako leku falta dagoela aipatu izan duzue behin baino gehiagotan.

Lau urteko unibertsitate planean zehaztu genuen zer eraikin egin behar genuen eta nola berrantolatu.

"Ikerkuntza egiteko oso egoera latzean gaude; horretarako bideratutako dirua beherantza doa"

Elurreta eraikina handitzea aurreikusten genuen, besteak beste, eta aurrekontu faltagatik bertan behera geratu zen proiektua; baina, zorionez, Micaela Portillarekin ondo konponduko dugu arazoa. 7.000 metro

koadro berri izango ditu, eta nik uste izan dugun azpiegitura falta-ekin amaituko dugula.

Bien bitartean, Lascaray zentroan kexatu dira ikerketarako aurrekontu nahikorik ez dutela.

Eta hala da. Baina ez bakarrik sail horretan, farmazian eta beste zenbait arlotan ere aurrekontua eskasa da. Ikerkuntza egiteko oso egoera latzean gaude, eta ikerlan talde baten lana eteten bada desagertzeko arriskua dago; ikasleak beste leku batera joan eta bertan behera geratzen da ikerkuntza. Ziur nago, zoritzarrez, azken aldian ikerketa proiekturen bat bidean geratu dela, aukeratu egin behar delako eta egoera onean daudenak mantendu. Hain zuzen, orain dela bi hilabete aurkeztu zuten Gobernu batzordean

Javier Garaizar, Arabako EHUko errektoreordetzan.

ITZIAR HORMILLA



ikerkuntza plana eta argi eta garbi dago horretara bideratutako dirua beherantza doala...

Karreraren bat kolokan izan daiteke hurrengo urtean? Hainbat aldiz izan dira zalantzan letretakoak.

Orain dela sei urte berrantolaketa handi bat egin zen Letren fakultatean, hainbat ikasketa elkartu ziren eta gaur egun eskaintzen ditugunak oso osasuntsu daudela esan daiteke, are gehiago, gune indartsuenetako bat dela esan daiteke. Arazo bat dugu, aldiz, topografiarekin; oso ikasle gutxi dago gaur egun eta bertan behera uztea erabaki dugu. Hurrengo urtean ez da eskaintzarik egingo; horren orde, beste ikasketa berriren bat izan daiteke. Gizarteak eskatzen duenera egokitzen joan behar dugu.

Ikasle berrien matrikulazio kopurua mantendu al da aurtengo?

Mantendu da baina gauzak aldatzen ari dira. Gero eta ikasle gehiago dago historia ikasten, esate baterako, eta momentu batean krisialdian egon ziren ikasketa horiek. Kontrakoa gertatzen da ingeniarietan; gustuak eta beharrak aldatzen ari dira. Ia 8.000 ikasle daude gaur egun eta batez beste, aldaketak aldaketa, mantendu egin da kopurua.

Europako ikasketa sistemara egokitu al da guztiz EHU?

Bai, eta nik uste onurak ekarri dituela. Hainbat ikasketa luzatu egin dituzte eta horrek ahalbidetu du, esaterako, egonaldiak eta praktikak egitea; ia 800 ikasle egon dira guk antolatutako praktiketan campusetik kanpo eta portzentaje zati

handi batek lana lortu du horien bitartez. Metodologiari dagokionez, bestalde, uste dut garai batean ikasleen jarrera nahiko pasiboa zela, apunteak hartu eta hori bera azterketan errepikatzea zen lana. Orain konplizitatea bilatzen da eta irakasleek zein ikasleek "gehiago" eman behar dute. Guk IKD dugu martxan, Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa, ikasleek beren ikaskuntza-aren jabe izatea lehenesten duena, eta prestakuntza integrala bultzatzen duena; horrek konpromiso gehiago eskatzen die ikasle zein irakasleei. Oso bolonizalea naiz.

Espainiako Gobernuak ezarri nahi duen 3+2 erreforma zer iruditzen zaizu?

Orain hausnarketa prozesuan gauden eta ikusiko dugu zertan geratzen den, baina uste dut ez dela batere

ona sistema aldatzea urte bateko epean, alde batetik bestera ibiltzea. Orain duguna ez da ebaluatu, ez da bukatu, ez dakigu nola hartu duen gizarteak; goizegi iruditzen zait aldaketa hori emateko. Eta, bestalde, ez dut uste onurarik ekarriko duenik, hiru ikasturtera murrizten bada mugikortasuna galduko da, enpresa praktikak...

Nolako harremana duzu ikasle mugimen- duekin?

Harreman ona, baina indartu behar dugu. Zertarako gaude hemen? Haiek dira gure arrazoi nagusia. Baina batzuetan, egia da etsaiak bezala ikusten gaituztela eta ez, gu irakasleak gara. Gaur jakin dut, esate baterako, preso saharar baten inguruko hitzaldia antolatu dutela eta kontxo! guk EHU Kulturaren bitartez ekitaldi bat egin genuen joan den astean Fronte Polisarioko arduradunetako batekin baina... ikaslerik ez. Alegia, ez garela ados jartzen. Saiatzen ari naiz ikasleekin dugun muga hori gainditzeko baina zaila da, kostatzen da.

Datorren astean, esaterako, hezkuntza alternatiben inguruko jardunaldiak anto- latu ditu Jaikialdiak.

Bai, gaur jakin dut eta haiekin ari gara antolatzen behar dituzten espazioak. Zeozer antolatu nahi badute gu laguntzeko egongo gara baina gustatuko litzaidake haiekin gauzak lantzea eta ez izatea enteratzen azkena. Harreman hori lantzea gustatuko litzaidake; Ikasle Etxea izeneko egitasmoa ere haiekin jorratzea da asmoetako bat, eurek kudeatuko luketen espazio bat, baina nola eta zer egin erabakitzeko dago. Leioako campusean, adibidez, mar-



Javier Garaizar, Arabako EHUko errektoreordetza duen bulegoan. | ITZIAR HORMILLA

txan dago eta ideia ona dela uste dut.

Gasteiz eta EHUren arteko "muga" gain- ditu al da? Unibertsitatea hirian eta lurraldean ondo txertatu dela uste duzu?

Hain zuzen, hori da nire lana, zubiak eraikitzea. Udalari, enpresei, herri-tarrei EHUko jakinduria eramatea da nire betebeharra. Hainbat aldiz aipatu da harreman hori eta egia da "muga" naturala trenbidea dela baina uste dut gainditu dugula hori. Gero eta ekintza gehiago dago hiri-buruan eta lurraldean EHUren eskutik; joan den asteburuan, esaterako, Bibat museoa izan ginen zientzia-ren inguruko astearekin eta ardoa-ren inguruko saio batekin Oihane-derren. Katedralaren egitasmoan murgilduta gaude, Arabako Errio-

xako aurkikuntzetan...

Gasteizko autobus geltoki berriarekin kezka zegoen kanpotik etorritako zenbait ikasleren artean. Konpondu dira arazoak?

Zati bat konpondu da. Zorionez, La Union autobus enpresak eskaintzen duen zerbitzuarekin jarraitzen dugu eta unibertsitateraino heltzen dira autobusak. Bizkaitik datozen 2.000 lagun arazoa behintzat konpondu dugu, baina Gipuzkoatik datozen beste 500 ikasle eta irakaslerena dugu konpontzeko oraindik; geltoki berria dela eta, berandu heltzen dira klaseetara edota ordubete gehiago behar dute heltzeko, eta hainbat kexa jaso ditugu. Gipuzkoako Aldundia eta Pesarekin akordio bera lortzea gustatuko litzaiquike; mahai gainean hainbat proposamen ditugu.



Cercas Bajas, 27
01008 VITORIA-GASTEIZ

Tel: 945 14 41 95

SOLAS ALEAN

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

**Josebe
Iturrioz**-ekin

DATA: azaroaren 17an, asteartea

ORDUA: 18'30ean

TOKIA: Oihaneder Euskararen etxea

*elkarriketa
irekia, bota
zure galdera*

Gidariak:

ALEA
arabako aldiakaria

hir!net

Antolatzailea:

www.oihanedereuskararenetxea.eus



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KATE ANTZOKIA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



HAIZEA GALARRAGA
IDAZLEA



JON GIL
IRUDIGILEA

Botika magikoa

Tranbian bidaiatzeak badu bere xarma, jende ezezagunaren egunero-kotasuna behatzeko aukera eskaintzen digu eta. Tranbiak eta bertan gertatzen denak beti oparitzen digu artikulu bat idatzeko moduko esperientziaren bat. Gaurkoan, beraz, horietako bat dakarkizuet. Fikzioaren mugak gainditzen dituen bizipen erreala duzue honakoa. Egiazkotasuna zin dagizuet.

Hamaika ikusteko jaioak garela diote, eta hala da, bai! Egunero bezala, Gasteiz zeharkatu nuen, puntarik punta, aurreko astean. Bidea laburra eta azkarra izan zen arren, deigarria egin zitzaidan egoera batekin egin nuen topo. Jakin badakigu isiltasuna eta lasaitasuna ez dela garraio horren ezaugarri bereizgarria, sekulako zalaparta egoten baita beti.

Bozgorailua irentsi izan balute bezala, batzuk oihuka. Eta munduaren akabera balitz bezala, ume asko negar batean blai. Nire parean, oraindik bi urte bete gabe zituen haur bat aulkian eserita; gurasoak, alboan. Tranbiara igo eta hurrengo geltokira iritsi baino lehen eman zion umeak

negarrari. Ez zegoen hura kontsolatzerik.

Gurasoak eta gainontzeko bidaiariak segituan hasi ziren urduritzen, pazientzia zer den ere ahaztu egin zaigun garai honetan. Gosea, mina... Auskalo zer zuen! Batzuen zorionerak, segundo gutxi igaro ziren haurra lasaitu zen arte. Aitak, isil-misilka,

sakelako telefonoa atera, umearen eskuarte jarri eta kitto! Bat-batean, negarrak ez.

Deabruak hartuta bezala, haurrak ez zuen begirik kentzen pantailatik. Eta lerro hauek irakurri bitartean harritu den irakurleak pentsa dezala helduok ere halaxe gaudela sorginduta. Txundigarria da, aldiz, teknologia berriekiko dugun morroitz hain goiz hastera.

Garai batean, urruti genituen horiekin hitz egiteko bidea zen mugikorra. Ondoren, alboan genituenekin komunikatzeko, sare sozialetan itxurakeriak egiteko, jolasean aritzeko... Orain, itxuraz, umeak isilarazteko botika magiko ere bilakatu da.

Martxa honetan, zein izango ote da hurrengo geltokia? Noraino iritsiko gara? Gure burua kondenatu dugu, eta badirudi ez garela ohartu ere egiten...



HOZKAILU SOLIDARIOA ITSASEGIAREN ZINTA



SAREAN

#Dulantziz

Behobia-Donostia maratoi erdian euskara izan zen lesionatueta bat, "con alegría y esfuerzo" hitzak halaxe itzuli baitziztuzten: "ahalegin eta dulantziz". Oso *dulantzi* aritu dira batzuk ere sare sozialetan. **I. ESTARRONA** @itsasoestarrona GASTEIZ



Xabier Isasi @XabierIsasi

Dulantziz beteriko lasterketa Behobiatik Donostiara. Gehiegi, txo!



Ardibeltza @Ardbltz

#ichulcháile_automáticoa ren beste ekintza bat! #dulantziz



#Axularlibre @Mandoigane

Kartel hau PPk egin zuen batekin konparatzeko moduan dago "atsedenik ez drogarik gabe" #Alegría-Dulantzi jaja



Ana I. Morales @AnaizNi

Asmoz eta jakitez, ahalegin eta dulantziz! Nik uste #dulantziz adoptatu behar duela euskal twitterosferak



Muybastos @muybastos

Dulantzi ARABA da!!!



Maite Goñi Eizmendi @euskaljakintza

#gaurkohitza 'pozkada' da, #dulantziren kontuaren harira: "Grina, ahalegin eta... pozkidaz beteriko 20 kilometro..."

ASTEKO ARGAZKIA



Zure gutunak eta argazkiak bidaltzeko:

erredakzioa@alea.eus Gutunek gehienez 1.500 karaktere izan behar dituzte. ALEAK laburtu ditzake eta HIRINETEN argitaratu.

PP-k izan ezik, gainontzeko talde politiko guztiek parte hartu zuten Gasteizko Plaza Berrian egindako ekitaldian. | GASTEIZKO UDALA

**MEMORIAREN
EGUNEAN,
PP BERE KABUZ**

Daudenengatik bakarrik ez: egon ez direnengatik ere izan dira albiste aste honetan Oroimenaren Eguneako argazkiak. Izan ere, PP-k ez baitu gainontzeko alderdi guztiekin batera erakundeek deitutako

ekitaldietan parte hartu, bere omenaldi propioa antolatu du-eta. Irudian, Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiek Plaza Berrian antolatutako elkarretaratze isila. **I. ESTARRONA**



IÑIGO ANTEPARA

GASTEIZ IREKIA Errefuxiatu eta migratzaileen eskubideak defendatzeko jaio da Gasteiz Irekia ekimena; bide horretan, "gure herriak gerretan duen inplikazioa" agerian utzi nahi dute. **Z. ETXEBERRIA / S. FDZ. DE ARANGUIZ / I. ESTARRONA** GASTEIZ

"Beldur mezuaren kontra egin nahi dugu Gasteizen"



Gasteiz Irekia ekimeneko Iñigo Anteparak Geu elkartearen Hirinet FM irratsaioan hitz egin zuen asteartean, Radio Vitorian. | AITOR ALVAREZ

GEU elkarteak ALEAekin egin-dako Hirinet FM irratsaioan egon da aste honetan Gasteiz Irekia ekimeneko Iñigo Antepara. Bertan, "Siria-ko auzira mugatu gabe, migratzaile guztien eskubideen alde" egingo duten

lanaren berri eman du. **Nola sortu da Gasteiz Irekia?** Aurkezpen prentsaurrekoa aurreko ostiralean eskaini genuen, baina horren aurretik hainbat bilera egin izan ditugu. Siriako gerrako zenbait errefuxiatu Gasteizera etorriko zirela izan zen albiste (Eusko Jaurla-

ritzak ez du oraindik kopurua zehaztu), eta Gasteizko hainbat norbanakok, Gobernu Kanpoko Erakundeak -GKE-, sindikatuk eta bestelako eragileek talde bat sortu genuen, ez bakarrik errefuxiatu horien gaia jorratzeko, baizik eta, kontuan izanda errefuxia-

tuez gain hemen bestelako etorkin asko daudela, Gasteiz ireki baten aldeko lana egiteko.

Harremanik al duzue instituzioekin?

Errefuxiatuen gaia jorratzeko, CEAR eta Acnur bezalako erakundeekin egoten dira harremanetan


instituzioak, hori ez baita hainbeste gure lana. Talde bezala, gaur-gaurkoz ez dugu harreman zuzenik instituzioekin.

Zer urrats egingo duzue?

Ez ditugu gustuko komunikabideen bidez jasotzen ditugun albisteak: milaka errefuxiatu etorriko dire-

"Errefuxiatuek ez dute Espainia helmuga, Alemania edo Suedia baizik"

la errepikatzen digute, baina estatu espainiarrean ez da hori gertatuko, errefuxiatuek badakitelako Espainia krisian murgilduta dagoela eta hemen ez dagoela lanik. Bere herrialdetik ihes egiten duten pertsonak, siriarren kasuan adibidez, Turkia, Libano, Jordania eta inguruko herrialdeetan geratzen dira; beste batzuk Europa dute helmuga, baina ez Espai-



Bizilagunak sukaldean

Pertsona errefuxiatuen aldeko CEAR-Euskadi batzordeak jatorri ezberdineko Gasteizko familiak elkarrekin bazkaltzeko ekimena prestatu du. Azaroaren 22an izango dira elkar-ezagutza bazkariak, eta izena eman behar da: bizilagunak. araba@gmail.com / 945266805.

nia, baizik eta Alemania, Suedia edo Ingalaterra. Beldurraren mezua hedatu nahi dute, eta guk mezu horren kontra egin nahi dugu Gasteizen. Ez dira milaka etorriko.

Baina baten bat bai, ezta? Zuek nola egingo duzue Gasteiz solidarioaren aldeko lana?

Gure helburua sentsibilizatzea da: hitzaldiak antolatzea, kontzentrazioak deitzea... Ez dugu lan asistentzialik egingo, hori CEAR eta Acnur bezalako erakundeek egiten dutelako eta, berez, Eusko Jaurlaritzaren ardura delako.

Gasteiztarrek nola parte har dezakete iniziatiba honetan?

Dauzkagun etorkinez gain, beste asko ditugu ate-joka Ceutan eta Melillan, eta badakigu Eusko Jaurlaritzak ez dituela pertsona horiek onartutakoen taldean sartuko. Gasteiztar bezala, dagoeneko hemen bizi diren etorkinak onartzeaz gain, etorriko direnak ere beste edozein herritar bezala tratatu beharko genituzke, bereizketarik gabe.

Espainiako estatuari eta Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeari (NATO) eskatu diozue Siriakoa bezalako gatazkekin bukatzeko. Zer nolakoa da Espainiaren inplikazioa?

Sirian gertatu dena Iraken gertatutakoaren gauza bera da: gure estatua NATO-ko kide denez, gerra horretan inplikaturik gaude. Gainera, armak eta munizioak ekoizten dituzten Euskal Herriko enpresak ere gerraren parte dira, eta haiengandik dirua ateratzen dugu gizarte moduan. Gu ere gerra horren parte garela agerian utzi nahi dugu. Horretarako, laster hitzaldi bat antolatuko dugu.

Norbaitek Gasteiz Irekia ekimenean parte hartu nahi badu, nola lagundu dezake?

Edozein pertsonak parte har dezake. Azkenaldian astero biltzen gara, asteazkenetan. Webgunea badugu [www.redsolidaria.info/gasteiz-irekia], eta Facebook eta Twitterren ere aurkitu gaitzakete.

ENTZUN: HIRINET.NET

OGASUNA

Proiektu berria baztertuta, iazko zergak indarrean

Enpresarien zerga da jaitsiko duten bakarra

I. ESTARRONA

GASTEIZ

Gasteiztarrek aurtengo udal-zerga eta tasa berdinak ordainduko dituzte 2016an. Izan ere, 2015eko arau fiskalak izoztu ditu Gasteizko Udalak, Gorka Urtearan alkateak eta PSE-ko udal taldeak proposatutako kopuru berriek ez zutelako oposiziotik babesik jaso.

Hiriko zerga, tasa eta prezio publiko gehienak %1 igotzea proposatu zuten udal-gobernuak eta sozialistek, tartean haurresko-

len tasa, kotxea lerro urdinean aparkatzeko prezioa, piszinetako karneta eta ur-zerbitzua. Salbuespenen artean zaborrak zeuden; hain zuzen, hondakinen tasa %6 eta 10 artean garestitu nahi zituzten.

Autobus txartela, berdin

Sozialisten babesik gabe eta Hemen Gauderen oniritziarekin (Podemos), autobus txartela 1,15 eurotik 1,35 eurora igotzea proposatu zuen alkateak ere; BAT txartelarekin ordaintzen dutenentzat, 0,56 euro-



Piszinetako karneta ez da azkenean %1 garestituko. JALEA

tik 0,73ra bi urtetan. Igoerarekin milioi bat euro lortu nahi zituen autobusen flota berritzeko, besteak beste. Ostera, gainontzeko alderdiek kontra bozkaturik, berdin jarraituko dute Tuvisaren prezioek.

Jaitsieren artean, Jar-duera ekonomikoan gaineko zerga izango da baka-

rra (JEZ), 2,2tik 1,1era murriztuko baitute PNV, PSE eta PPren akordioaren ondorioz. Hori dela eta, bi milioi euro gutxiago bilduko ditu Udalak.

Arau fiskalen proiektu berria atzera botata, proposatutako aurrekontuan ere aldaketak egin beharko ditu udal-gobernuak.



Alfredo Pereiro audioarrak 'Haziak' izeneko lurrina sortu du, Gernikako Arbolaren kimuak erabiliz. | AIARALDEA.EUS

ALFREDO PEREIRO REKAKOETXEA

'HAZIAK' PERFUMEAREN SORTZAILEA Gernikako Arbolaren kimuekin, lurrin berria sortu du Alfredo Pereiro arabarrak (Ladio, 1961). **TXABI ALVARADO - AIARALDEA AUDIO**

"Haritz usaina du Gernikako Arbolatik sortutako koloniak"

Gernikako arbolaren kimuak saltzen dituzu. Nola bururatu zitzaizun?

Duela 30 urte hasi zen dena. Gernikako arbolaren ezkurak hartzen nituen, nire kimu propioak egiteko, kapritxo moduan. Batzuk niretzat gorde eta beste batzuk lagunen artean banatu nituen. Duela bi urte langabezian geratu, eta gustatzen zitzaidan hori modu serio batean egitea bururatu zitzaidan. Bane-kien mundu osoan zeudela landaturik Gernikako Arbolaren kimuak, eta horiek bilatzeari ekin nion. Herriz herri joaten hasi nintzen, topatzen nituen kimuen ezkurak hartzen eta argazkiak ateratzen.

Baina hortik nola egin duzu

salto kolonia bat egitera?

Kimuen kontuaren harira webgune bat atondu nuen, eta eskaerak iristen hasi zitzaizkidan, horietako asko Hego Ameriketatik. Baina ezin nituen kimuak bertara bidali, baimen bereziak izan behar dituzulako Ameriketara horrelako zerbait bidaltzeko. Orduan kimuen orde zerbait bidali nezakeen pentsatzen hasi nintzen, eta horrela sortu zen koloniaren ideia. Athletic-ek edota Madonak bazituzten euren koloniak, baina guk ez genuen gure lurraldeari, Euskal Herriari, loturiko koloniarik. Gernikako Arbolatik haritzaren esentzia ateratzea zen helburua.

Baina zu ez zara perfume egilea, ezta?

Ez. Ezagun batek esan zidan Katalunian bazegoela eskoziar bat, Jimmy Boid, enkarguzko koloniak ekoizten lan egiten zuena. Berarekin kontaktuan jarri nintzen eta nire asmoak kontatu nizkion. Haritz

"Orain arte, ez genuen Euskal Herriari lotutako koloniarik"

hostoak bidaltzea eskatu zidan, eta hilabete eta erdiz egon zen Frantzian duen laborategi batean, probak egiten. Egun batean bere deia jaso nuen. "Izugarri ondo geratu da", esan zidan. Gama zabal bat bidali zidan, eta nik bat

aukeratu nuen. Izena, botilatxo eta barruko hostoa jarri genizkion... eta listo. **Eta zer nolako usaina dauka?** Haritzaren egurraren usaina dauka, baina ez gehiegi. Horrez gain, Boid-ek bergamotaren ukitua ere eman dio. Laranja eta limoiaren arteko zitriko bat da bergamota, eta koloniari oreka ematen dio. Denbora pasatu ahala aldatu egiten da usaina. **Harrera ona izan du egitasmo berriak?**

Oso ona. Gertatzen dena da hau artisautza produktu bat dela. Ez da El Corte Ingles bezalako kate handietan saltzeko, Euskal Herriarekin harremana duten dendetarako baizik. Donostiako Albo-k dendan, Gernikako Euskal Souvenirs-en edota Bilboko Alde Zaharrean dagoen Orriak-en topatu daiteke.

Kolonia ona da. Jimmy Boid oso perfume egile ona da, Rochas edo Margaret Astor bezalako markentzako lan egin duena. Hori bai, ez dakigu Hego Ameriketara bidaltzerik izango dugun, garraiatzea oso garestia delako.

Kultura ezberdinen topagune bilakatuko da asteburuan Izarra

Azoka kultur anitza ospatuko dute ostiraletik igandera, "jatorri ezberdineko herritarren artean elkar ezagutzeko"

ITSASO ESTARRONA

IZARRA

"Elkarrekin bizi gara, baina elkar topatu gabe". Hitz horiekin egin du gaur egungo gizartearen erradiografia Zalao Gorostizaga Urkabustaizko zinegotziak. Elkar ezezagutza horri aurre egin eta zubiak eraikitzeko, azoka kultur anitza antolatu du Urkabustaizko Udalak asteburu honetarako udalerriko herriburuan, Izarrran.

Marokotik iritsi da biztanle berri gehien Urkabustaiz udalerrira

Guztira 1.300 biztanle inguru ditu Urkabustaizek, eta, erroldaren arabera, Marokotik iritsi da herri-

tar berri gehien bertara; 31, zehazki. Zerrendan

"Elkarrekin bizi gara, baina elkar topatu gabe; zubiak eraiki behar ditugu"

ZALOA GOROSTIZAGA
IZARRAKO ZINEGOTZIA

bigarren jatorria Errumania da, 27 auzokiderekin. Beste herrialde batzuetatik ere heldu dira udalerrira, tartean Portugal (16), Aljeria (9) eta Mauritania (15).

"Eskola izan daiteke elkar ezagutzarako gune aproposa, baina elkar agurtu ondoren, norberak berearekin jarraitzen du; orokorrean, ez dugu harremanik batzuek besteekin". Hori dela eta, Zalao Gorostizagaren hitzetan "zubiak

Egitaraua

13, OSTIRALA

19:30 Hitzaldia: 'Kuartango solidario'.

20:00 Kultur aniztasunaren aldeko pintxo-potea.

14, LARUNBATA

11:30 Sukaldaritza tailerra Behekoiturrin: 'Kus-kusa eta tea'.

19:00 Haurrentzako antzerkia kultur etxean: 'Nai Malabarista'.

15, IGANDEA

12:00 Azoka kultur anitza frontoian: jakiak, musika, dantza, jantziak.

12:30 Haurrentzako tailerrak frontoian.

13:30 Afrikako musika eta jantzien erakusketa.

eraiki" behar dira auzokideen artean, eta xede horrekin antolatu dute hain zuzen asteburuko azoka: "Kultura ezberdinen topagune izateko".

Munduko arrozen lekukoa

Aurretik ospatzen zituzten bi jaialdi bateratu dituzte azoka berri honetan: Munduko arrozak herri bazkaria eta azoka gastronomikoa, hain zuzen. Udalak antolatuta, udalerriko hainbat eragilek hartuko dute parte egitarauan. Besteak beste, Lan eta Jolas elkarteak, Urkabustaizko tabernariak, bertako nekazari eta ekoizleak eta gizarte inklusiorako zerbitzuek. Jatorri ezberdineko norbanakoek ere egitarauan parte hartuko dute: esaterako, udalerrian bizi diren zenbait sahararrek eman go dute kus-kus eta te tailerra.



Munduko arrozak jaia eta azoka gastronomikoa bateratu dituzte ekimen berrian; irudian, beste herri bateko munduko arrozen irudi bat. | T. MENG

GUZTIA
TBa *Ez dugu neurrik!*

90 kanal baino gehiago
HD deskodetzaile grabagailua • Edonon • Bideokluba

orain soilik **7€** /hil
BEZa BARNE

Kontratatu euskaltel.com-en | Dendetan | 1717an **euskaltel**

Ikusleek telesailak, filmak eta dokumentalak gaituzte, eta zenekoa gutxiago.

Azkar aldatzen dira garaia, eta telebista ere bai. Europako telebista-ikusleek ohitura eta formatu berriak nahi dituzte, etxeko aisialdirako. "Zuzeneko" emankizun gutxiago eskatzen da orain. Gure bizitza-erritmoak urrundu egiten gaitu telebista ikusteko lehengo ohituretatik. Telebista aldatu egin da, eta, horrekin batera, haren programazioa eta hura ikusteko gure modua ere bai.

Telesailak gehiago gustatzen dira. Gaika, komedia, suspensea eta filmak dira. Gehiago gaituzte. Arduak dira, gehiago gaituzte, eta, haiek dira. TBrekin kultura eta kulturizatzea gaituzte; horregatik dokumental historikoek. Etxean ditugun kanaletako batzuk musikakoak eta kontzertuetakoak dira. "Giro" telebista da, entretenitzen eta animatzen gaituena, etxeko lanak egiten ari garen bitartean. Agur esan diegu ordu egiei. Urrutiko agintea edukitzea gustatzen zaigu, eta ikusi nahi duguna noiz hasiko den erabakitzea. Horregatik, grabagailudun deskodetzaile askoz gehiago dago orain. Ikuslearen interaktibitate horrek telebista-plataformen informazioa elikatzen du. Ongi etorri telebista berrira!

2015/11/30 baino lehen egindako kontratazioetarako balio du sustapenak, 6 hilabete irauleko konpromisoari eusteagatik bakarrik. Prezioak lehenengo hiru hilabeteetarako balio du. Ondoren, 13,95 €/hil, BEZa barne, izango da.

Babesle teknologikoak:





Igande eguerdian sutea piztu zen Sobrongo bainuetxeko Hotel Blanco eraikinean; sugarrek guztiz hondatu dute egitura. | EUSKADIKO SUHILTZAILEAK

Sobrongo bainuetxea, sute batek hondatuta

Sugarrek XIX. mende Erdiko eraikuntza kiskali zuten igande eguerdian

ITSASO ESTARRONA

LANTARON

Uraren erreinuan sua gailendu da, Arabako Lantarón udalerrian. "Españiako Vichya" bezala ezagun izandako Sobron bainuetxeko Hotel Blanco eraikina guztiz hondatu zuen igandean sute batek. Espejo eta Gasteizko suhiltzaileek garraio itzaltzea lortu bazuten ere, hotel ohiaren egiturak hondatuta geratu dira, larrialdi zerbitzuek baieztatu dutenaren arabera; beraz,

erortzea beste etorkizunik ez du oraingoz.

XIX. mendearen erdialdean eraiki zuten Sobrongo bainuetxea, Sobron eta Soportillako iturri termalak baliatuta. Bainuez gain, dantza aretoa, kafe-tegiak, billarrak, ile-apaindegia, telegrafo zerbitzua eta nazioarteko egunkariak erosteko posta-bulegoa zituen ere, Gerra Zibila hasi zen urtean ateak itxi zituen arte (1936).

Bertan aurkitutako

Erromatarrek iturri termalak erabiltzen zituztela uste dute

aztarnetan oinarrituta, iturri-termal horiek erromatarren garaian erabiltzen zituztela baieztatu zuten bainuetxeko sortzaileek, eta XIII. mendean geroztik emandako erabileran probatu zezaketela ziurtatu zuten ere.

Bainuetxe izan ondo-


ren, Francoren Erakunde sindikalak atsedenerako erresidentzia sortu zuen bertan 1950ean, eta behin sindikatu bertikala desegin ondoren, Arabako Diputazioaren jabetza izatera pasa zen. Ixteko erabakia hartu zuen Aldundiak, eta Lantarongo Udalari saldu.

Proiektu berriek, porrot

2003an, bainuetxe berria sortzeko proiektuari ekin zion enpresa pribatu batek, baina egitasmoak porrot egin zuen. Iaz ere, Lantarongo Udala Bizkaiko Hormibal enpresarekin negoziatzen ibili zen, bainuetxea saldu eta eraberritzeko, baina azkenean enpresak atzera egin zuen. Orduetik ez da beste ekimenik sortu, eta bitartean babesgabe jarraitu du bainuetxeak, lapurreten biktima. Igandeko suteak erortzear utzi du.



Sobrongo bainuetxearen Hotel Blanco eraikineren itxura, duela lau urte; igandeko suteak eraikina erortzear utzi du. | MARCO REMON



Euskara ikasteko aurrekontuak jasotako 10.000 euroak banatuko ez direla uste du EH Bilduk. | M. RAMIREZ

Euskara ikasteko laguntza murriztea salatu dute

Euskaltegian ikasteko diru laguntzak murriztu dituztela adierazi du Aguraingo EH Bilduk

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar
AGURAIN

Aguraingo Udalak euskara ikasteagatik herritarrak lagundu beharrean "mugak" jartzen dituela eta euskara ikastea "garestiagoa" dela salatu du udalerriko EH Bilduk. Udal gobernauak "inorekin kontrastatu gabe" beka sisteman aldaketak aplikatu dituela adierazi du Ainitze Saez de Arregi zinegotziak: "Eta ez dira nolanahiko aldaketak izan, euskararen normalizazio prozesuan beste atzerapauso garrantzitsu bat ekarriko dute".

Saez de Arregik azal dutakoaren arabera, ohikoena euskaltegian astero zortzi orduko ikastaroa izatea da, alegia, bi ordu egunean astelehenetik ostegunera, bederatzi hila betez. Ikastaro horien prezioa 452 eurokoa baldin bazen, ikasle zein langileen kasuan matrikularen

%100a arte jasotzeko aukera zuten. Orain aldiz, ikasleek gehienez 361,6 euro jasoko dituzte (%80a), betiere 26 urte edo hortik beherakoa bada. Langileen kasuan, berriz, hemendik aurrera matrikularen %50a jasoko dute gehienez –lehen ez zegoen toperik– eta gehienez 400 euroko muga dute –lehen 500 euro ziren–. Murrizketa horiek dagoeneko ezarri dituela salatu dute.

EH Bilduk salatu duenez, aldaketa hauek aplikatuta baliteke aurrekontuan jasota dauden 10.000 euroak ez banatzea. "Baliteke beste edozertan gastatzea eta datorren urtean, aurtun dena gastatu ez delako aitzakipean, partida honen diru kopurua jaistea". Hori horrela balitz, ikasle bakoitzak pairatuko lukeen diru laguntzaren murrizketa askoz ere handiagoa izan-

go litzatekeela nabarmendu du Saez de Arregik.

Kanpaina, Barrundian

Euskara bultzatzeko asmoz, beste alde batetik, *Ei txo! Jauzi egin eta euskeraz hitz egin* goiburua duen kanpaina jarri du abian Barrundiako Udalak.

Azken asteetan hainbat ekitaldi izan dituzte eta urte amaiera arte ere beste zenbait izango dira. Azaroaren 27an, esaterako, bertso afaria izango da Aldaia tabernan, Fredi Paia eta Izar Mendiguren bertsolariekin. Abenduaren 6an, bestetik, Durangoko Azoka bisitatze bidaia antolatu dute, eta abenduaren 13an herri kirolen eskola izango da haurrentzat, Heredian. Abenduaren 27an, azkenik, *Lazarragatarrak, sorginak...* hitzaldia eskainiko du Kike Fernandez de Pinedok, Larrean.

Askotariko musika estiloak izango dira Urte Amaiera Musikalean

A. AMENABAR

ARAIA

Ohitura duten moduan, musika da nagusi urteko azken hilabeteetan Araian, Landazabal elkarteak antolatutako Urte Amaiera Musikalari esker. Abenduaren 19a bitartean, askotariko musika talde eta estiloak igaroko dira Andra Mari aretotik.

Bernaola jaialdiko musikariak gerturatuko dira larunbatean, hilaren 14an, 20:00etan. Santa Zezilia musikari-eguneko kontzertua eskainiko du, beste alde batetik, Araiko musika bandak hilaren 21ean eta herriko abesbatzaren emanaldia izango da hurrengo egunean, hilaren 22an.

Alberto Itoiz eta Elena Cadiernoren kontzertua izango da, bestetik, hilaren 28an, pianoa eta flauta lagun. Eta pianoa kontraba-kuarekin batera entzuteko aukera izango dute abenduaren 5ean biltzen direnek, Ander Perrino eta Jarkko Riihimakisen kontzertuarekin.

Araiako abesbatzak eta txistulariek prestatutako kontzertua eskainiko dute abenduaren 12an, eta herriko bandak prestatutako gabonetako kontzertuarekin emango diote amaiera jaialdiari, abenduaren 19an; kontzertu honetan, halaber, Joseba Olalderen oroimenez antolatutako argazki lehiaketako sariak banatuko dituzte.



Entziako mendizerraren barnean espezie babestu ugari aurkitu daitezke, horien artean, mirotz zuria. | ALEA

Entziako animaliak eta landareak, babestuago

Entziako mendizerra Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu du Eusko Jaurlaritzak

AITOR ALVAREZ

HARANA

Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu du Eusko Jaurlaritzak Entziako mendizerra. Bertan aurkitu daitekeen fauna nahiz flora, bai eta zonaldearen balio geografikoa oso aberatsak kontsideratzen direlako lortu du KBE izatea.

Izendapen berriarekin,

zonaldea behar bezala kontserbatzeko neurri egokiak ezarri beharko dira, kontuan hartuta lekuaren habitat naturalaren eta espezieen berezitasunen arabera eskakizun ekologikoak.

Kontserbazio-neurri horiek izango dira, alde batetik, kudeaketako planak eta baliabideak, eta, bestetik, arautegizko neu-

rriak, administratiboak edo kontratuzkoak.

Ingurumena babestea helburu duten hainbat irabazi-asmorik gabeko erakunde arduratu dira izendapenaren aldeko alegazioak egiteaz eta alegazio horiei esker lortu da Entziako ingurumenaren babesa bermatzea.

Entzia Arabako ekialdean kokatuta dago eta

Nafarroako Urbasa mendilerroaren mendebaldeko jarraipena da. 1.000 metroko altueran dagoen goi-ordokia da eta iparraldean (Arabako Lautada) eta hegoaldean (Harana) kokatutako haranetara bat-bateko jaitsierak egiten ditu.

19 habitat-mota

Eremu horretan, intereseko 19 habitat-mota daude, gutxienez; eta haietatik bost lehentasunezkoak dira. Halaber, eremu horretan, gutxienez, 28 espezie babestu daude. Horiek ekarri zuten, 1997an Europako Batasunaren Garrantzizko Leku gisa (BGL) izendatzea Entzia.

**bernaola
festival
2015**



XII edizioa

azaroa

14	Tamgram / Musikari Gazteak II	23	Séverine Ballon
15	Musikari Gazteak III	24	Luis Tabuenca
16	Alfonso Gómez	26	Ensemble TaG
19	Peter Veale	27	Musikene Orkestra
21	Sigma Project	30	Guridi Garaikidea
22	Musikari Gazteak IV		

www.bernaolafestival.com

MANUEL MORENO MARTIN

TOPAGUNEKO ARABAKO SUSTATZAILEA 'Zergatik ez?' motibazio saioa gidatuko du Manuel Morenok datorren asteartean Trebiñun. **ITSASO ESTARRONA** TREBIÑU

"Gure hizkuntza portaerez gogoeta piztu nahi dugu"



Topagunea euskara elkarten federazioko Arabako sustatzailea da Manuel Moreno. | I. ESTARRONA

Euskararen erabilera soziala areagotze aldera motibazio gakoak eskaintzeko, *Zergatik ez?* tailerrak koordinatzen ditu Topaguneak –Euskara elkarten federazioak–. Araban, 50 saio inguru antolatu dituzte aurten, GEU elkarteak, Aiaraaldea Komunikazio Leihoak eta Topaguneako teknikariek gidatuta, kasuan kasu. Trebiñuko udalerrian, Manuel Moreno Martin (Ermua, 1965) Topaguneako Arabako sustatzaileak gidatuko du hurrengo saioa, asteartean 19:00etan udaletxean.

Zer landu ohi duzue 'Zergatik ez' tailerretan?

Euskararen erabilera soziala areagotzeko tailerrak dira. Erabilera sozialaz ari garenean, eguneroko esparruez ari gara (familia, lagunak...), ez soilik eskolaz, erakundeez eta bestelako eremu formalez. Mun-

duan dagoen hizkuntz aniztasunetik abiatzen gara, eta saiatzen gara irudikatzen aniztasuna ez dela mundu mailako fenomeno soilik, baizik eta gure inguru hurbilenean ematen dena ere. Hortik abiatuta, aniztasun hori modu orekatuan kudeatzeko proposamenak egiten ditugu: alegia, euskarari bizirik jarraitzeko eta erabilera esparruak irabazteko aukera ematen dion kudeaketa. Gure galdera da: zergatik ez kokatu euskara Euskal Herrian dagoen aniztasunaren erdian, kohesio hizkuntza gisa? Araban oraindik errealitate horretatik urrun samar gaude, baina horra jo behar dugula uste dugu.

Zer esparruko pertsonen parte hartu ohi dute tailerretan? Tailerren hartzaileek zenbait ezaugarri bete ohi dituzte: euskaldunak dira, bere euskalduntasunaren

kontzientzia dute, euskararen egoeraren jabe dira eta bere eguneroko bizitzan erabilera esparruak irabazteko dituzte. Saioan, argudiategi propioa lantzeko elementuak eskaintzen dizkiegu: hizkuntzaren egoeraren ingurukoak,

Bertso-afaria 20an

Trebiñuko Gutxisolo euskara elkarteak bertso-afaria antolatu du azaroaren 20rako (ostirala), 21:00ean Armentiaiko Bentetan. Felipe Zelaieta eta Oihane Perea arituko dira bertsoan.

norberaren erabakien ondorioen ingurukoak... Nahi dugun eta egiten dugunaren arteko koherentzia edo koherentzia eza azaleratuz, gure hizkuntza portaerez gogoeta piztu nahi dugu. **Aurten, gazteei eman nahi izan diezue lehentasuna. Zergatik?** Araban gazte askok dute aipatutako profila: euskaldunak dira eta euskararen egoera ezagutzen dute, baina erabilerarako esparru asko dituzte irabazteko. Motibazioa eta kontzientzia hartzeko gako batzuk izatea falta da, eta horretan ari gara. Datorren urtean agian beste xede-talde bati emango diogu lehentasuna: izan daitezke gurasoak, euskaltegiatako ikasle helduak...

Orain arteko saioetan, zer gogoeta azaleratu dituzte?

Jendeak aitortzen du ez duela euskara ahal beste erabiltzen. Badituela inguruan aukerak, eta hala ere ez duela urratsa egiten. Kontua da erruduntasun sentimenduaren motxila pixka bat deskargatzea, norberaren borondateaz gain badaudelako beste gako asko erabilera errazten ez dituztenak.

Zein, adibidez?

Esaterako, aurreiritziak: pentsatzea besteak ez duela euskaraz jakingo, edo bestearen euskara oso aberatsa dela neurearekin alderatuta, edo neuk batua erabiltzen dudala eta besteak euskalkia... Badaude erabilera oztopatzen duten aurreiritzi asko. Horiek desmontatu nahi ditugu, eta erabilera areagotzeko gakoak eskaini.

Gaztelerazko saioak dituzue esku artean ere, ezta?

Aldaera ezberdinak ditu tailerrak; horietako bat gazteleraz ematen dena da (*¿Compartimos?*). Datorren urtean eskainiko dugu Araban eta Euskal Herrian.

San Inazioaren pausuen atzetik, 500 urte geroago

Herri ibilbidea egingo dute Inaziotar bidearen Arabako Errioxako etapan, larunbat honetan

AITOR ALVAREZ

LAPUEBLA DE LABARCA

1522. urtean San Inaziko egindako bidearen zati bat gogoratzeko aukera izango dute Arabako Errioxako herritarrek larunbatean, azaroaren 14an. Ardoaren Ibilbideak herri bisitaldia antolatu du, Inaziotar bidea ezagutzera emateko helburuarekin.

Inaziotar bidea San Inazio loiolatarrek 1522an bere herritik Manresaraino (Katalunia) egindako erromesaldia da. Izan ere, Inaziok bere garaiko gizarteak eman zizkion bizierak baztertu zituen eta “korrontearen aurka” joatea erabaki zuen. Erabaki

horrek bultzatuta, Jerusalemeko bidea hartu zuen, Bartzelonara eramango zuen Errege Bideari jarraituz. Han itsasontzi bat hartu behar zuen, bere erromes-bidea jarraitzeko, Lur Santuetara.

20,2

KM-KO IBILBIDEA

Kripan herritik hasi eta Lapuebla de Labarcen bukatuko da ibilbidea, Bilar eta Guardia zeharkatuz.

500 urte geroago, Inaziotar Bidea erakundeak ideia hori berreskuratu du erromesaldi esperien-

Herri ibilbidea Arabako Errioxa zeharkatzen duen etapan egingo da

tzia eskaintzeko. Inaziotar bide osoa 27 etapaz osaturik dago, 657km guztira.

Larunbat honetan 08:00etan Lapuebla de Labarcen elkartuko dira partaideak eta autobusez Kripaneraino joango dira, bertatik ibilbiderai hasie-

ra emateko. Hiru anoa-gune egongo dira bidean zehar, parte-hartzaileek etenaldi bat egin dezaten. Lapuebla de Labarca izango da ibilaldiaren helmuga.

Ardoaren Ibilbideak, Inaziotar Bidearekin elkarlanean, erromesaldiaren GR-120 etaparen inguruan egingo du herri bidea, Arabako Errioxa zeharkatzen duen zatiaren inguruan, hain zuzen ere.

2015eko uztailetik 2016ko uztailera Loiolako San Inazioaren urte santua izateagatik ere erabaki da ekintza hau antolatzea.

Horrez gain, Babestutako Biotopoak diren guneak zeharkatuko dituzte larunbatean, Guardiako urmaelak, esate baterako, Inaziotar Bidearekin batera Arabako Errioxa bera ere promozionatzeko.

Parte hartzea doakoa da, baldintza bakarra Ardoaren Ibilaldiaren web orrialdean izen-abizenak ematea izango da.



Inaziotar bidearen zati bat egiteaz gain, partaideek Arabako Errioxako paisaiatzat gozatzeko aukera izango dute. | ARABAKO ERRIOXAKO ARDOAREN IBILBIDEA



Asteartean Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean elkarriketa eskainiko du Josebe Iturriotz ekintzaile transfeministak. | IÑAKI LARRAÑAGA

Generoak hankaz gora

Emakume eta gizon binomioa kolokan jarri eta publikoaren aurrean bere bizipenak 'biluzteko' prest, Gasteizera etorriko da Josebe Iturriotz ekintzaile transfeminista asteartean, Oihaneder Euskararen Etxera. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

Alua edo zakila izateak ez duela norbait emakume edo gizon bihurtzen; arraren eta emearen arteko desberdintasunak ez direla biologikoak; aldiz, gizarteak sortutako eraikuntza bat direla. Horiek dira, muturreraino sinplifikatuta, transfeminismoaren zutabeak, eta zutabe horiek soinean jantzita etorriko da asteartean Josebe Iturriotz ekintzaile transfeminista (Ordizia, 1978) ALEA aldizkariak gidatutako SolasALEAN ziklora, Oihaneder Euskararen Etxeak antolatuta.

Filosofian lizentziaduna eta berdintasun teknikaria, Medeak kolektibo transfeministaren sorreran parte hartu zuen Josebe Iturriotzek,

eta Plazandreok eta Plaz! bezalako hautagaitza feministetan ere parte hartu izan du hauteskundeetan. Komunikabideetako zenbait tertulietan hitz egin ohi duelako aurpegi

ezagun bihurtuta, publikoaren galderak erantzutera dator gipuzkoarra, horixe baita SolasALEAN zikloaren gakoa: entzulea elkarriketatzaile bihurtzea, idatziz nahi beste galdera egiteko aukera edukita.

Generoak moztarri sozial bezala ulertuta, maskarak kentzeko prest etorriko da Josebe Iturriotz, bere ibilbidean esanguratsuak izan diren objektu bat eta abesti bat aukeratu. Bere askari gogokoenetako bat meriendatzeko aukera izango dute ere bertaratutakoek saioaren amaieran, eta elkarriketa egin eta hiru egunera ALEAK argitaratuko du pape-reko edizioan. Bitartean, galderak botatzeko beta ireki da #SolasALEAN traola erabilita.

SolasALEAN saioak

AZAROA-ABENDUA

Azaroaren 17an, asteartea (18:30):

Josebe Iturriotz ekintzaile transfeminista, berdintasun teknikaria eta filosofian lizentziaduna.

Abenduaren 18an, ostirala (18:30):

Olentzero eta Mari Domingi, bereziki haurrentzat zuzenduta.

Amorruaren aztarna

Duela lau hamarkada eztanda egin zuen punk mugimenduak gaur egungo ekoizpen artistikoan daukan oihartzuna jaso du Gasteizko Artium museoak, urtarilaren 31ra arte ateak zabalik izango dituen erakusketa batean. **I. ESTARRONA** GASTEIZ

Amorrua, zarata, abiadura, neurrigabekeria, probokazioa, arau-haustea, kritikotasuna, inkonformismoa: musika estilo bat baino gehiago izan zen 1970. hamarkadan leher-tutako punk mugimendua. Akorde berriak taularatzeaz harago, sistema sozial, kultural, politiko eta ekonomikoaren zigorra izan zen ere. Zapataren zolan txikle bat, edo harri pikor bat. XX. mendeko kultura-mugimendu garrantzitsuenetakoa bihurtuta, oihartzuna izan du azken lau hamarkadetako ekoizpen artistikoan.

Era guztietako teknikekin egindako 60 obra bildu ditu erakusketak, tartean irudiak, bideoak eta margolanak

Orain, amorru-hots horiek gaur egungo sormen lanetan utzitako aztarna azaleratzeko erakusketa ireki du Gasteizko Artium arte garaikideko euskal zentro-museoak.

'Punk. Arte garaikidean utzi dituen arrastoak' izenburupean, nazioarteko berrogeita hamar artista baino gehiagoren lanak bildu dituzte erakusketan; guztira, hirurogei artelan inguru daude ikusgai, era guztietako teknikak erabiliz egindakoak: margolanak, argazkiak, bideoak, eskulturak, dokumentuak zein instalazio artistikoak.

Moda, goreak, anarkismoa, sexua

Sei esparrutan banatu dute erakusketa, kontzeptu ezberdinen arabera antolatuta. Lehendabiziko gunean moda eta itxura dira ardatzak, hainbat sortzailearen lanekin, tartean Carlos Graham, Pepo Salazar, Joao Onofre eta Jamie Reid. Bigarren esparruak alienazioa eta gorearekin du zerikusia, gizartearen arau hertsien aurrean ihesbi-



Jimmie Durham sortzailearen autorretratua. | ARTIUM

deak bilatzen zituen mugimendua- rekin. Hor kokatzen dira, besteak beste, Santiago Sierra, Jordi Colomer, Paul McCarthy eta Martin Kippenbergen artelanak.

Mutiriak eta bortizkeriak ere badu bere lekua hirugarren atal batean; horretan, Pepo Salazar, Clair Fontaine eta Nan Goldin bezalako artisten lanak kokatu dituzte. Bestalde, anarkismoak hainbat sortzaileengan izandako pisua erakusten du laugarren esparru batek (Itziar Okariz, Juan Perez Agirre- goikoa, Federico Solmi); zerrendan

bosgarrenak terrorismo eta biolen- tzia testuinguruaren seinalea du (Detext, Chiara Fumai, Mabel Palacin).

Erakusketa ixteko, sexua oina- rri duten lanak bildu dituzte, alda- rrikapen eta askapen iturri moduan ulertuta, Guerrilla Girls, Maria Pratts eta Tracey Emin gisako artis- ten sinadurarekin.

Urtarrilaren 31ra arte egongo da zabalik, asteartetik ostiralera 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta larunbat eta igan- deetan, 11:00etatik 20:00etara.

Elkarren osagarri

Lan mundua euskalduntzeko bidean, hainbat etzabaida eta mahai-inguru izan dira azkenaldian. Orain arteko zailtasunak gainditu eta elkarlanerako apustua nabarmendu du Rober Gutierrezek. **BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA** @baieuskarari GASTEIZ

ROBER GUTIERREZ
BAI EUSKARARI
ZIURTAGIRIAREN
ELKARTEA



Lan munduaren euskalduntzea bizkortzeko hainbat ekimen eta hausnarketa aurkezten eta bideratzen ari dira azken asteotan. Lan munduaren espazioetan eragitearen beharra azpimarratzen ari da. Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalak bere 47. artikuluan dioen bezala, hizkuntza komunitate orok eskubidea baitauka bere hizkuntzaren erabilera xedatzeko bere lurraldearen barruko jarduera sozioekonomiko guztietan.

Euskaraz lan egiteko, euskaraz saldu eta erosteko eta, azken batean, euskaraz *normaltasunez* bizi ahal izateko, pertsonak ez ezik, lan munduaren espazioak ere euskalduntzea ezinbestekoa da. Lanean ematen dugun denboragatik edota produktu eta zerbitzuen kontsumitzaile garelako, eragina du lan munduak gure eguneroko bizimoduan eta gure hizkuntza-jardueran.

Gutako asko euskaraz ere formatu gara. Belaunaldi berriak euskaraz formatzen ari gara, baina lana erdaraz egin behar bada, zein funtzio bete behar du euskarak? Lanerako euskaraz (ere) trebatu eta gero, lan munduan euskarak lekuri ez badu, zertan ari gara?

Eragin beharra dago. Alor sozioekonomikoan, gure herri eta hirietako bizitza sozialean eragin behar dugu (egoera soziolinguistikoak oso desberdinak direla ahaztu gabe). Erronkari aurre egin behar diogu, erantzukizunez. Helburuak argi, ausardiaz, bidea urratu behar dugu. Ideiak eta egitasmoak behar ditugu. Joko arauak. Sustapena eta laguntzak. Epeak ezartzea, segimendua eta ebaluazioak... Koherentzia. Aitorpena, babesa, elkar-

"Akordio sozio-politikoa behar da, ondoren hizkuntza politika erakitzeko"

lana eta lankidetzak. Konplizitatea. Aurreko guztia pentsatuko eta garatuko duten aktoreak behar ditugu eta horien arteko nahitaezko artikulazioa.

Administrazioa ez ezik, enpresariak, sindikatuak, kontsumitzaileen elkarteak, euskararen sustapenean ari diren erakundeak... denen inplikazioa behar da lan mundua euskalduntzeko ezinbes-

tekoak diren neurriak erabaki eta eraginkortasunez aplikatzeko.

Elkarlana bideratu beharko litzateke orain arte egon diren zailtasunak gaindituta. Jakin beharko genuke urte hauetako lorpenak, ikasgaiak eta metatutako aberastasuna babesten eta etorkizunera-ko baliatzen. Hurkoak egindakoa balioetsi beharko genuke, besteek egindako lana sistematikoki ezkutatze eta kontuan ez hartze joera atzean utzita. Formula eraberrituak behar ditugu, egiteko era berri eragingarriak... Eta akordioak. Akordio sozio-politikoa behar da, hizkuntza politika eraikitze. Fishman-ek esaten zuen bezala, akordio politikorik gabe, hizkuntza plangintza noraezean doa.

Adibide xume batekin bukatuko dut. Araban Euskara Lanean proiektua garatzen ari gara aurtengo martxotik. Izaera desberdineko entitateak ari gara parte hartzen eta proposamenak adosten. Alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzeko helburu partekatuarekin ari gara lanean. Elkarri aitortuz bakoitzak duen garrantzia, babesten, osagarritasuna bilatzen eta guztion arteko elkarlana bideratzen. Ez da erronka makala!

artepan

Azken zozketetako irabazleak

Izaki Gardenak kontzertua

Igor Muñoz Oñederra (Gasteiz).

Zainzuri sorta

Begoña Leon Petite (Gasteiz).



ZOZKETAK

Harpidedunentzat eskaintzak

Zehaztu zure izen-abizenak eta
zer zozketatan parte hartu nahi duzun:



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus



Hala Bedin afaria

Gasteizko Alde Zaharreko Hala Bedi tabernan **bi pertsonentzako afaria** zozketatuko du ALEAK, ostiral edo larunbat batean afaltzeko. Eman ezazu izena **azaroaren 17a** baino lehen. Hilaren 20an jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



Rayden kontzertuan

Rayden rap musikariak kontzertua eskainiko du Jimmy Jazz aretoan, azaroaren 21ean (larunbata), 21:30ean. Sarrera bikoitz baten zozketan parte hartzeko, eman izena **azaroren 17a** baino lehen. Hilaren 20an jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



AZAROAK 14
11:00-14:00

Marie
Toure

Ikastaroa:
DANTZA
AFRIKARRAK

20€

AZAROAK 19, 20, 21, 22

20:30

FOTO
Parasite Kolektiboa

Sarrerak: 12€/15€
<https://ticket.kutxabank.es/principiantzokia>



GASTEIZ

Saioa Fernandez de Aranguiz

"Zorionak, Saioa! Beti kameraren beste aldean eta oraingoan argazkian ateratzea zuri tokatu zaizu! Ondo ondo pasa! Musu handi bat GEUko lagunen partez".



GASTEIZ

Ruth Ibañez eta Sonia Ruiz de Infante

"Zorionak Sonia eta Ruth! Iritsi gara! 'Kuarentenan' sartu gara! Besarkada handi bana! Irati".



GASTEIZ

Iker Domaica

"Zorionak Iker! Pentsatzen bazenuen libratuko zinela... hori da oraindik ez dakizula zelako jendearekin ibiltzen zaren! ;-) Zure kuadrilla".



Norbaiti zure mezua helarazi nahi diozu?
erredakzioa@alea.eus
625 231 603

GASTEIZ

Ainara Escobar

"Mari guztiak oso pozik gaude gure kuadrillatxora Maritxiki bat gehiago gehitu zaigulako. Ongi etorri, Jare! Orain gure Laidak norekin jolastu izango du. Zorionak Ainara eta Sergio".

Hizlaria: Iñaki Eizmendi Gizarte Hezitzailea

TEKNIKARIAREN GIDAREN AURKEZPENA

AZAROAREN 10ean, 19:00etan

Arabako Kirol Federazioen Elkarte (AFDA)
Amadeo Garcia de Salazar Eparantza, 3 - Mendizorrotxa, Vitoria-Gasteiz

TEKNIKARIAREN GIDALIBURUA HELDUEN JARDUERA FISIKOETAN ETA KIROLETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO

JARDUERA FISIKOAN ETA KIROLEAN HOBETZEKO TRESNAI
Kirol teknikari eta entrenatzaileen jardura hobetzeko tresnaren aurkezpena: euskararen erabilera indartzeko TEKNIKARIEN GIDALIBURUA.

Baliabideak:

- Errutina linguistikoak: Zerdi dira? Nola erabili? Zertarako?
- Hizkuntza irizpideak: Zertarako? Nola erabili?
- Baliabideak: hitzegiak, entrenamendu fitxak, webgune integarriak, materiala (DVDak, CDak, etab.)

■ NORENTZAT: Kirol elkarteak, Kirol Federazioetako ordezkariak, jardura fisikoetako teknikari eta entrenatzaileak.

■ HIZKUNTZA: Elebitan.

■ INFORMAZIO GEHIAGO: vrueda@alava.net edo ana@afdalava.com

HITZ GEZIDUNA

	Gatibu	▼	Libiako	▼	Heroiei dagozkienak	▼
	Hiltzaile		Aurkako		Gehiegi, sobera	
	▶		▼		▼	
Bortzirietako herria	▼	Poliki, mantso	▶	▼		
*		Anaiak				
▶		▼				
Dozena erdi	▶			Asiako estatua	▶	
Nagusiak				Ald, ni filosofikoa		
▶			▼			
Ipar EH-n, garestitua	▶				Harrapa ezan!	▶
Urri					Herri hizke- ran, eta	
▶						
				Korrika antolatzen du	▶	

* Gasteizko udalerriko dorretxea

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

K	E	A	N	V	K	V	B
A	O	I	O	R	I	K	A
O	N	K	A	B	E	A	J
K	S	E	I	R	A	K	
I	M	E	N	Z	A		
O	L	A	S	T	I	R	O
R	E	I	B	A	R		
L	E	R	A	I	L	E	
H	P	L					

SUDOKUA

5	8	7	3	6	1	9	8	5
6	9	4	8	5	2	7	1	3
2	1	3	7	9	4	8	6	5
8	6	9	5	2	3	1	7	4
3	5	1	9	4	7	2	8	6
4	7	2	6	1	8	5	3	9
7	4	5	1	3	9	6	2	8
1	3	6	2	8	5	9	4	7
9	2	8	4	7	6	3	5	1

GOITIBEHERA

A	I	R	I	O	G	I
O	R	I	A			
A	O	R	A			
G	O	R	A			
A	R	O				
O	R	I	A			
O	R	R	I	A		
B	A	R	R	I	O	
H	A	R	R	O	B	I

SUDOKUA

	2	8			6		5	1
				8				7
			1	3	9			
	7							9
	5	1				2	8	
8							7	
			7	9	4			
6				5				
5	8		3			4	9	

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA

1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.

1. Harria ateratzeko leku. 2. Gaubeako kontzejua. 3. Hostoa. 4. Gipuzkoako ibaia. 5. Garai, aldi. 6. Biba! 7. Ez du entzuteko ahalmenik. 8. Ezkertiarren gustuko kolorea. 9. Bidalia.



INAKI LARRANAGA

'Solasalean', Josebe Iturriozekin
Gasteiz. Asteartea 17, 18:30etan, Oihanederren.

AZAROAK

13

AZAROAK

19

EUSKARAREN AGENDA

BERTSOLARITZA

Euskal Herriko Bertso Eskolen Eguna

Agurain. Larunbata 14, 12:00etatik aurrera, herriko plazan. Herri bazkaria, bertso-poteoa eta beste hainbat jarduera.

DANTZA

'Ilunabarrean dantzan' dantza saioa

Gasteiz. Ostirala 13, 20:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean. Europako eta Euskal Herriko dantzak eta musika zuzenean.


ANTZERKIA

'Skratz'

Gasteiz. Igandea 15, 19:00etan, Salburuko gizarte etxean. Ameztu taldearekin.

Astalapo eta Habemus Papam

Gasteiz. Larunbata 14, 21:00etan, Gaztetxean.



ALEA

IKUS ENTZUN

'Euskal Harriaren ABDak' film laburrak

Gasteiz. Ostirala 13, 18:00etan, Oihanederren.

'Ekuadorrek bizitza maite du' diaporama

Gasteiz. Asteartea 17, 19:00etan, Urbeltz tabernan (Ozeano Barea, 9). Jokin Zurutzak Andeetako bizipenak hurbilduko ditu.

HAURRAK

Txotxongiloen itzal antzerkia

Gasteiz. Larunbata 14,

17:00etan, Ibaiondo gizarte etxean. Zurrunka taldearekin. 4-6 urteko haurrentzat.

'Txanogorritxu'

Amurrio. Igandea 15, 17:30etan, Amurrio antzokian.

'Ipuin lotsatiak'

Gasteiz. Astelehena 16, 18:00etan, Aranako gizarte etxean. 4-7 urte bitartean.

HITZALDIAK

Lourdes Oñederraren unibertso literarioa

Gasteiz. Asteazkena 18, 19:00etan, Iparralde gizarte etxean.



ALEA

'Léolo' pelikula eta solasaldia

Gasteiz. Asteartea 17, 20:30ean, Florida zinemetan. Jean Claude Lauzonek

zuzenduta (1992. urtean), Léo Lauzon haurren istorioa kontatzen du *Léolo* filmak, errealitate gordinetik ihes egiteko

ametsen mundura jauzi egiten duen umearena. Emanaldiaren ostean solasaldia izango da.

Nawat hizkuntzari buruzko hitzaldia

Gasteiz. Asteazkena 18, 19:00etan, Oihanederren. Hitz Adina Mintzo zikloa. Alan King, Paula Lopez eta Werner Hernandezekin.

'Musika', Unai Loborekin

Zigoitia. Osteguna 19, 19:00etan, kultur etxean. Sormenari buruzko jardunaldiak.

BESTELAKOAK

'Bakea, biolentzia eta elkarbizitza' ikastaroa

Gasteiz. Larunbata 14, 09:00etatik 17:00etara. Miren Harizmendi soziologo eta terapeutarekin. Azaroaren 28an beste saioa bat izango da.

GEUrekin mendira

Gasteiz. Igandea 15, 08:30ean, Mendizorrotzako aparkalekutik abiatuta. Urbasara egingo dute irteera. Izena eman behar da aurretik: geurekinmendira@gmail.com.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

The Dictators NYC

Gasteiz. Larunbata 14, 22:00etan, Hell Doradon.

Ignotus

Laudio Larunbata 14, 22:00etan, Drumgorri aretoan.

Amor de Tokio

Gasteiz. Asteartea 17, 20:30ean, Parral tabernan.

La Bien Querida

Gasteiz. Asteazkena 18, 19:00etan, unibertsitate pabilioian.

ANTZERKIA

'Hullu'

Gasteiz. Ostirala 13, 20:30ean, Principal antzokian.

'Travesías'

Dulantzi. Larunbata 14, 19:30ean, antzokian.

'Hedda Gabler'

Gasteiz. Larunbata 14, 20:30ean, Principal antzokian.

CDN antzerki konpainiarekin.

'Boxers',

Gasteiz. Asteartea 17, 19:00etan, Salburuko gizarte etxean. Pez Limbo taldearekin.





ANTZERKI
jaialdia
amateur

festival
TEATRO
amateur

del **6-tik** - al **28ra** | **NOVIEMBRE / AZAROA** | ALEGRIA-DULANTZI 2015

6	OSTIRALA VIERNES	TROYANAS	ARGEA TEATRO (HERVAS - CÁCERES)
7	LARUNBATA SABADO	CASANOVA, MEMORIAS DE UN LIBERTINO	TEATRO KUMEN (LANGREO - ASTURIAS)
8	IGANDEA DOMINGO	TRASTORNOS LITERARIOS	7 GRADOS (BILBAO - BIZKAIA)
13	OSTIRALA VIERNES	EL BURGÚÉS GENTILHOMBRE	GRUPO ALHAMA DE TEATRO-GAT (CORELLA - NAVARRA)
14	LARUNBATA SABADO	TRAVESÍAS	LA TEADETRO (RIVAS-VACIAMADRID - MADRID)
15	IGANDEA DOMINGO	YO SOY LA REVOLUCIÓN	AMARA TEATRO (AMURRIO - ÁLAVA)
20	OSTIRALA VIERNES	¡¡¡MAMÁÁÁ!!!	SEGUIMOS SIENDO COMEDY (TALAVERA DE LA REINA - TOLEDO)
21	LARUNBATA SABADO	PERRAS	STRES DE QUATRE (ALBALAT DELS SORELLS-VALENCIA)
22	IGANDEA DOMINGO	SALVAJES INFANTIL	LA PETIESTABLE 12 (LLEIDA)
28	LARUNBATA SABADO	AMAIERA JAIA - GALA CLAUSURA conducida por Gorka Aguinagalde y Pirata	

www.teatroamateur.com

Diario

Alegria-Dulantzi



Arrioko Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava